# OLEŔKI-I

## Abeŕtzale baten negaŕa

*Euzkeldunak:*
*Galdu da gure izena:*
*Enda danak diñoe*
*Eztala geyago euzkeldunik!*

*Mendi gustijak*
*Ikusten dira*
*Danak goŕi-goŕirik;*
*Eŕi gustijak, bere,*
*Dana ixil-ixilik.*

*¡Euzkaldunak:*
*Egijaz esaten da*
*Eztala, eztala*
*Geyago euzkeldunik!*

ARANA-GOIRI'TAŔ SABIN.

## Miren deunaren Jasokundian

*Alatz andija ikusten dagoz Beldubak*
*aŕiturik ilobi inguruban:*
*obi-arija kendurik bere baŕuba*
*lora edeŕaz beterik ikusten da.*

*Neskutzaŕen gorpuba eztago antxe*
*Goigotzon-eguetan donokira*
*jaso dau bere Ama, Algustidunak*
*ixan dalen Donoki-Bakalduna.*

*Urtzi Ala-Semiak burestundula*
*Donokiŕko-Bakaldun Neskuts ona!*
*Euzkadi abeŕi male-gaxo onegana*
*bigurtu begi oŕek eŕukijaz.*

*Abeŕija lotuten daben estuntzak*
*zeuk biŕinduta jausi dalezala,*
*ta Euzkadi azkatuta, Jainkuaŕena*
*bakaŕik, beti ixango da.*

UTAŔSUS.

## Udako odeya

*Udako odeya,*
*zuriz jantzija*
*eta oztiña egala,*
*axune-ziaŕ*
*egaka dua*
*uso, gotzon bat bezela.*

*Luŕ legoŕtubak*
*so-dagitso ilun,*
*—alatsu male ezetsijak—*
*ta begijakaz,*
*itzez eziñik,*
*dagitsoz bere eskarijak.*

*Erantzunik ez.*
*Ai, odeyaren*
*bijotza altzarena ixaki,*
*ta olde bage,*
*axe-moŕoi lez,*
*luŕari joyako igesi.*

*Ortze-aldian*
*ageŕtutako*
*udataŕ odei zurija,*
*lilura-amesez*
*bete ondoren*
*luŕa ase bage igesija...*

*...Udako odeya,*
*bijotz bagea,*
*eskaŕen ukalarija...!*
*zu bezelaxe*
*igesi jun zan*
*nire maŕasun gurija...*

ENDAITZ.